



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



Gipuzkoako Foru Aldundia

## VI. ERANSKINA

### JEZARI BURUZKO HITZARMENA - 6. EREDUA

OLABERRIKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN ORDAINKETAKO BORONDATEZKO EPEKO NAHIZ EPE EXEKUTIBOKO KUDEAKETAREN, LIKIDAZIOAREN ETA BILKETAREN ESKUORDETZARI BURUZKOA, IKUSKARITZARAKO ESKUMENA GORDETA.

Donostian, **2012 URT. 03**  
**ENE.**

#### ELKARTURIK:

Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean, Helena Franco Ibarzabal and., Ogasuna eta Finantza foru diputatua eta, bestetik, Jokin Garmendia Asurabarrena jn. Olaberriko Udaleko alkate lehendakaria.

#### ADIERAZTEN DUTE:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiek, Euskadiko Autonomi Estatutoaren 41.2.a) artikuluan xedatutakoari jarraituz, Ekonomia Itunaren 2. artikulua emandako ahalmenez baliatuz Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen 11/1989 Foru Araua uztailearen 5ekoa onartu zuten.

Bestalde, 1/1993 Foru Arauak otsailaren 17koa, Bigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Jarduera Ekonomien gaineko Testu Bateratua onartu zuen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Araugilearen bitartez.

11/1989 Foru Araua Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen bere 19.1 artikuluan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ezartzea jasotzen du, eta aitortzen zaizkien eskumenen erabilera egin





OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



Gipuzkoako Foru Aldundia

nahi duten udalek, eskumenen egikaritza eta dagokien Ordenantza Fiskala erabakitzeke beharra zehazten du.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 7. artikulua modu orokorrean, eta apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Araugilearen 15.1 artikulua eta Instrukzioaren 17.1 erregelak modu zehatzean, jarduera burutzen den udalerriko Udalari eskumenak ematen dizkio Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren gutxieneko udal kuoten kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta zergabilketa ahalmena bai borondatezko epealdian bai premiamenduzko bidean.

Era berean, 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak apirilaren 20koa, 15 artikuluan Foru Aldundiaren eta Udalen arteko eskumenen banaketa zehazten du.

Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskumen hauek dagozkie:

- Zergaren matrikularen eraketa eta iraupena.
- Jarduera ekonomikoen kalifikazioa.
- Kuotak finkatzea.
- Alta aitortzenetik eratorritako likidazioak egitea.
- Ordainagiriak egitea.
- Salbuespenak eman edo ukatu aurreko txosten teknikoa egitea.
- Errekurtso eta erreklamazioak ebaztea, bere eskumeneko gaietan.

Udalari, berriz, eskumen hauek dagozkie:

- Ofizioz emandako altak likidatzea.
- Errekurtso eta erreklamazioak ebaztea, bere eskumeneko gaietan.
- Zergaren kobrantza.
- Salbuespenak eta hobariak ematea.
- Koefiziente bakarraren eta kokapen indizearen ezartzea, Zerga arautzen duen Foru Dekretu Araugilearen 10 eta 11 artikuluetan xedatutakoari jarraituz.
- Zergaren inguruko gaietan zergaduna laguntzea eta informatzea.
- Zerga ikuskatzea eta Foru Aldundiari laguntzea matrikula egin eta iraunarazten.
- Eta orokorrean, 11/1989 Foru Arauaren II Tituluaren, III Kapituluaren adierazten diren gainerako ahalmenak.

*Helena*



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hortaz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan udalei dagozkien eskumenen egikaritzeak beraien esku ez dauden bitarteko tekniko batzuen beharra sortuko lukeela, edota beraien esku baleude ere, Zergaren kudeaketaren neurrigabeko kostua sortaraziko lukeela kontuan izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahia da Gipuzkoako udalei asistentzia juridiko eta tekniko eskaintzea eta beraiekin kudeaketa arlo guztietan lan egitea. Hori guztiagatik, 1/1993 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa beteaz, egoki irizten da udalena den Zergaren kudeaketa, likidazioa, ikuskaritza eta zergabilketa eskumenak Foru Aldundiaren esku uzteko aukera ematen dien Hitzarmena sinatzea

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak honako hau,

#### ERABAKI DUTE:

Honako Hitzarmena egitea, ondorengo

#### OINARRIEKIN:

##### Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen bitartez Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uzten dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga Arautzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Araugileak Olaberriko Udalari (Udala aurrerantzean) Zerga kudeatu, likidatu eta zergabiltzeko emandako eskumenak. Udalak zergaren ikuskaritza mantentzen du.

##### Bigarrena.- Eskuordetzaren edukia.

Eskuordetzak ondoren zehazten diren administrazio egintzak ditu:

- Altak, aldaketak eta bajak izapidetzea eta likidatzea.
- Errekurtsoak eta erreklamazioak ebaztea, hobari eta onura fiskalak emateari buruzkoak izan





OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



Gipuzkoako Foru Aldundia

ezik.

- c) Zerga borondatezko epealdian eta premiamenduzko bidean kobratzea.
- d) Oker egindako sarrereren itzulpen espedienteak tramitatzea eta ebaztea.
- e) Behar diren errekerimenduak eta jakinarazpenak egitea.
- f) Zergapekoa informatzea eta laguntzea, Udalak zentzu horretan egin ditzakeen egintzen kalterik

gabe.

#### **Hirugarrena.- Dokumentazioa hartzea eta jakinarazpenak egitea.**

Bostgarren Oinarrian xedatutakoaren kalterik gabe, bi alderdien artean Foru Aldundia finkatzen da organo eskudun, subjektu pasiboek aurkeztzen duten dokumentazioa hartzeko eta jakinarazpenak egiteko.

#### **Laugarrena.- Koeffiziente eta indizeak zehaztea.**

Udalak Ogasun eta Finantza Departamentuari bidaliko dio Zerga arautzen duen behin-betiko Ordenantza Fiskala onartzen duen erabakiaren kopia egiaztatzailea, finkatzen diren koeffizienteak eta indizeak adieraziz, erabakia hartu eta hurrengo hilean edo, nolnahi ere, behin-betiko onarpena hartzen deneko hurrengo urteko urtarrilaren 30a baino lehen.

#### **Bostgarrena.- Onura fiskalak aitortzea.**

Onura fiskala jasotzeko eskaera, alta aitortenarekin batera egiten bada, Foru Aldundian aurkeztu behar da. Foru Aldundiak Udalera bidaliko du eskaeraren kopia hilabeteko epean. Eskaera salbuespena aitortzekoa den kasuetan, eskaerarekin batera 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak 15.5 artikuluan aurreikusten duen txosten teknikoa igorriko da.

Udalak salbuespena edo hobaria jasotzeko eskaera ebatziko du eta zergadunari nahiz Foru Aldundiari, oharremateko, jakinaraziko die.

Onura fiskalak jasotzeko eskaera, alta aitortenarekin batera ez bada egiten, Udaletxean aurkeztu ahal izango da. Udalak onura jasotzeko eskaera ebatzi eta zergadunari nahiz Foru Aldundiari, jakinaraziko



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



Gipuzkoako Foru Aldundia

die oharremateko. Halere, salbuespen eskaera ebatzi aurretik Udalak eskaera Foru Aldundiari bidaliko dio txosten teknikoak igorri dezan, adierazi den epean.

Foru Aldundiak Udalari ez balio ebatzenaren aurreko txosten teknikoak epean bidaliko dokumentazioa osatu gabe dagoelako edo beste edozein arrazoiengatik, hala adieraziko dio Udalari eta txostena ez bidaltzearen arrazoia zein den zehaztuko.

Udalak emandako onura fiskala Foru Aldundiak kontuan hartuko du oharremateko jakinarazten zaionetik.

#### **Seigarrena.-Alta, aldaketa eta bajei buruzko informazioa.**

Foru Aldundiak hilero bidaliko dio Udalari, jarduera udalerrian duten subjektu pasiboaren zerrenda, zergaren matrikulan izandako alta, baja edo aldaketan berri emanez. Zerrenda horretan subjektu pasiboaren nortasun eta jardueraren datuak adieraziko dira.

Udalari hiruhilero bidaliko zaio egindako likidazioen zerrenda .

#### **Zazpigarrena.- Jakinarazpenak egiteko epeak.**

Udalak Zergaren inguruan egiten dituen izapide edo egintza oro Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinarazi beharko dio izapide edo egintza horiek hasi zireneko hilabetea amaitu eta hamabost eguneko epean, eta nolahi ere, urteko azken hilabetean egindako izapide eta egintzak badira, hurrengo urteko urtarrilaren 30a baino lehen.

#### **Zortzigarrena.- Errekurtsoen ebatzpena.**

Errekurtso bat aurkeztuz gero, Udalak edo Foru Aldundiak gaiaren arabera, jakinarazpen arrunta bidaliko dio ebatzpen ematea dagokion organoari edo, bestela, errekurtsoa ebatziko du hala egitea dagokiola uste badu eta, horren ondoren, ebatzpena jakinaraziko du.





**OLABERRIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA**  
**(GIPUZKOA)**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

**Bederatzigarrena.- Okerreko sarreren itzulketa.**

Gipuzkoako Foru Ogasunak Udal sinatzailearen izenean bildutakoaren kontura oker egindako sarrerak itzuli beharko balitu, itzultako zenbatekoa itzulketa gauzatzen den urteko ekitaldiari dagokion likidaziotik deskontatuko da.

**Hamargarrena.- Matrikula egitea.**

1/1993 Foru Dekretu Araugileak apirilaren 20koa, 14.1 eta 17 artikuluetan xedatutakoari jarraituz Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero Zergaren Matrikula prestatu eta bidaliko dio Udalari ordainagiriak kobratu aurretik.

**Hamaikagarrena.- Informatikako aplikazioan sartzea.**

1/1993 Foru Dekretu Araugileak apirilaren 20koa, 14.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalari beti bermatuko dio Udalerriko jardura ekonomikoen zentsu informazio guztia eskuratzeko aukera. Horretarako, Udalak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzeko erabiltzen den aplikazio informatikora sarrera izango du. Udalerriko jardura ekonomiko guztien informazio osoa izango du Udalak: udal eremukoena, probintzi eremukoena eta estatu eremukoena.

**Hamabigarrena.- Kobrantza ordainagiriak egitea.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainagiriak prestatu eta zergabilketari ekingo dio.

**Hamahirugarrena.- Zergabilketa bide exekutiboan.**

Borondatezko ordainketa epea amaitzen denean Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak ekingo dio jaulkitako eta kobratu gabeko ordainagiriak kobratzeari.

Egiten diren premiamenduzko probidentzia eta embargoak Udalari jakinaraziko zaizkio horien berri izan dezan.



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hamalagarrena.- Jakinarazteko beharra.**

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Udalak elkarri jakinaraziko diote beraien arteko bitartekari lanetarako izendatu duten pertsona edo organoa zein den. Bitartekariaren bitartez zerga alorrean ondorioak dituen eta laguntza teknikorako garrantzia duen eskatutako informazioa elkarri emango diote; bai eta, hitzarmenaren ondorioz, sortzen den informazioa eta korrespondentzia elkarri zentralizatu eta banatuko ere.

**Hamabostgarrena.- Likidazioa.**

Borondatezko ordainketa epea amaitu eta hiru hilabete igarotzean, Gipuzkoako Foru Aldundiak epe horretan ingresatu diren zenbatekoen likidazioa egiteari ekingo dio eta aipatu zenbatekotik Gipuzkoako Foru Aldundiak xedatua duen zerga kudeatzeko zerbitzuaren kostua deskontatuko du. Likidazioari kobratzeko dauden ordainagirien zerrenda gehituko zaio.

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak hiru hilero bide exekutiboan egindako kobratze kudeaketaren berri emango du, eta aurreko hiruhilekoan bildutakoaren likidazioa egiteari ekingo zaio, Gipuzkoako Foru Aldundiak xedatua duen zergak kudeatzeko zerbitzuaren kostua aipatu zenbatekotik deskontatuz.

Hiruhileko likidazio horretan, alta eta baje likidazioetatik eratorritako Gipuzkoako Foru Aldundiak ingresaturiko zenbatekoak barne sartuko dira, alden zerrenda erantsiz eta , Gipuzkoako Foru Aldundiak xedatua duen zergak kudeatzeko zerbitzuaren kostua, aipatu zenbatekotik deskontatuz.

**Hamaseigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.**

Hitzarmen honek 2012ko urtarrilaren 1 (e)tik 2012ko abenduaren 31 (e)ra bitartean izango du indarra.

Aipatu epealdia amaitzerakoan urteko epez luzatuko da hitzarmenaren indarraldia, baldin eta bi instituzioetako organo eskudunek esanbidezko salaketarik egiten ez badute. Salaketa edozein unetan egin





OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA  
(GIPUZKOA)



Gipuzkoako Foru Aldundia

ahal izango dute, eta egin deneko dataren hurrengo ekitalditik aurrera izango du ondorioa, beti ere, beste alderdiari indarraldia amaitu aurreko azaroa baino lehen jakinarazten bazaio.

Bi alderdiek Adostasun frogatzat eta behar bezala erasota gera dadin hitzarmenaren bi ale sinatzen dute hasieran adierazitako datan eta lekuan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean,  
Ogasuna eta Finantza foru diputatua

Udalaren izenean, Udaleko alkate lehendakaria

